

## 1. Team 10: Hiri jarraitua

1. Sarrera: Team 10 edo Team X Mugimendu Modernoaren berrikuspen kritikoa sustatu zuen arkitekto-taldea izan zen. Haien lehen biltzarra Team 10 izenpean 1960an Bagnols-sur-Cèze garatu zuten. Azkena, berriz, 1981ean, Lisboan, bertan lau partaide soilik izan zirelarik. Taldearen erdigunea zazpi arkitekto osatu zuten, alegia, Jaap Bakema, Georges Candilis, Giancarlo De Carlo, Aldo van Eyck, Alison eta Peter Smithson eta Shadrach Woods arkitektoek. Horietaz gain, partehartzaile gehiago izan ziren Team 10 taldeak antolatutako biltzarretan, besteak beste, Jose Coderch, Ralph Erskine, Amancio Guedes, Herman Hertzberger edo Oswald Mathias Ungers. CIAM arkitektura-biltzar internazionaletan aurkitzen da Team 10 taldearen izenaren jatorria. Biltzar horien hamargarren saioa, Dubrovniken garatu zena, alegia, arkitekto gazte talde batek antolatu zuen, geroago *Team 10* gisa ezagutuko zena. Handik aurrera, taldea bere biltzar propioak antolatzen hasiko zen, erakunde berriaren sorrera formalki aldarrikatu gabe. Taldeak ez zuen teoria orokor edo estilo adosturik jarraitu. Taldea baino, gizabanakoz osatutako multzo sasi-antolatuaz hitz egin daiteke soilik. Hala ere, ezaugarri amankomunak ere bazituzten, besteak beste, kalean garatzen ziren jardueretik interesa, umeen jolasen munduarekiko lilura, edota arkitekturaren gizarte-baloreenganako sinismena. Taldeak aldarrikapen adostu bakarria argitaratu zuen 1954an, *Doorneko manifestua* deitua. Bertan, CIAMen *Atenasko Agiriaren* aurkako ideiak kaleratu zituzten, hirigintza konplexutasun-maila ezberdineko komunitateek osatzen dutela esanez, eta bakoitzak osotasun baten moduan tratatu beharra zegoela azpimarratuz. Hori guztia grafikoki azaltzeko Patrick Geddesen 1909ko *Haranaren Sekzioaren* moldaketa bat prestatu zuten, hirigintza-eskala bakoitzak (hiria, herria, herrixka, baserria) habitat ezberdina osatzen zuela esanez, bakoitza dentsitate jakin batekin garatu behar zela ziurtatuz.
2. Dubrovnikeko azken CIAM biltzarra, 1956: Smithsonen eskala ezberdinekin lotutako etxebizitzaren multzokatze-ereduak: etxe isolatu gisa, Bates etxea (kanpoalde bizigarria lortzeko estrategia); baserrian edo herrixkan, Fold etxeak (hiri txiki baten hutsuneak betetzeko estrategia); herrian, Galleon Cottages etxeak (herri-Unitéaren estrategia); hirian, Close etxeak (kale estalia ikertzeko helburua), eta metropolian, Crescent etxe terrazadunak (hiri handi baten hutsuneak betetzeko estrategia).
3. Team 10 arkitekto-taldeak landutako kontzeptu batzuk:
  - A+P Smithson: *cluster* (mordoa) / *street deck* (kale-plataforma) / *local culture* (bertako kultura).
  - Van den Broek eta Bakema: *habitat évolutif* (habitat garatua).
  - Candilis, Josic eta Woods: *web* (sarea) / *stem* (zurtoin, enbor).
  - Aldo van Eyck: *organized casbah* (kasbah antolatua) / *house=city* (etxea=hiria) / *doorstep* (ataria).
4. A+P Smithson:
  - Golden Lane konkurtsoa, Londres (bonbardeatutako eremu batean), 1952. 500 biztanle/Ha (~150 etxebizitza/Ha). Kale jasoa agertu zen, kanpoaldean Le Corbusierren *Unité* ez bezala, umeen jolastoki gisa.
  - Berlingo Hauptstadt konkurtsoa, 1957-58 (3. saria). Sarea eta mugikortasunaren gaiak landu zituzten. CIAMek hiria funtzio-eremuetan banatzen bazuen ere, Smithsonen sare lotzailea proposatu zuten, oinezkoentzako plataforma jaso baten bidez. Iparraldean, gobernuaren bulegoak; *Friedrichstrasse* eta *Unter den Linden* kaleen arteko bidegurutzearen alboan, Zientzia eta Teknologia Museoa; harresi moduko eraikinean, bulegoak.
5. Van den Broek eta Bakema:
  - Kennemerlandeko eskualde-plangintza, Alkmaar, Herbehereak, 1957-1959. 1.000 etxebizitzetako auzune-unitate oso pentsatuak, errepikagarriak izan zitezkeen; 30.000 etxebizitza barruti bakoitzean; 100.000 etxebizitza guztira. Hazkunde ez-kontzentrikoa (hazkunde linealak paisai-interes gutxiko eremuetan). Hiri-konposizio zentrifugoa (*De Stijl* mugimendu holandarraren eragina). Ertzetan eraikin altuenak kokatzen dituzte.
  - Middleharnis elbarrutuen egoitza, 1964. Ez da hirigintza proiektua, eraikina baizik, baina hiri-kutsu handiarekin.
  - 1956ko CIAM biltzarrean aurkeztutako Rotterdamerako auzune baten plangintza; Purmerstad-eko plangintza.
  - Amsterdamgo Pampus zabalguneko modernoa, 1965. 350.000 biztanlerako diseinatua, metro-bide berri baten inguruan (10.000 egoileko 35 unitate, 500 metro).
6. Candilis, Josic eta Woods:
  - Freie Universität, Berlin, 1963-73 (eraikuntza sistema Jean Prouvék egin). Sarearen kontzeptua landu zuten, eta “lurzoru-arraskari”-aren ideia ere, etxeorrazaren aurrean, solairuen arteko komunikazioa areagotzen zuena. Plataformak, espazio libreak eta kaleak gainjarri zituzten, egitura zabalgarria eta eraldagarria sortuz. Ez zen osoa eraiki. Eragin handiko eraikina izan zen (*mat buildings*, Le Corbusierren 1964ko Veneziako ospitala...).
  - Caen Hérouville hirirako eskemak, Normandia, 1961. Zurtoin, sustrai edo enborraren kontzeptua landu zuten: kalearen alternatiba garaikidea proposatu zuten, proiektu osoaren bizkarrezur egituratzaila gisa garatuz.
  - Toulouse-Le Mirail hiri-azunera, 1961-71 (100.000 biztanle). Eraikin publikoak hexagono itxurako zurtoin-plataforma egituratzaila batetik eskegita zeuden. Parkingak, behean. Proiektu hedagarria, teoriarik. Zati bat bakarrik gauzatu zen, 25.000 biztanlerako (%75a etxebizitza babestuenak).
  - Bilboko Asua bilarako proiektua, 1962 (85.000 biztanle). Gasteizko Aranbizkarra auzuneko hexagono-eraikinak.